



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER


Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO



Bero eta Hotz

2 UNITATE
DIDAKTIKOA

IPUINA
TESTU LUZEA

Izenburua/Título:	NAHIKO! BERDINTASUNERAKO, ERRESPETURAKO ETA BIOLENTZIA-EZARAKO HEZKIDETZA PROGRAMA NAHIKO! Programa Coeducativo para la Igualdad, el Respeto y la No-violencia
Zuzendaritza eta koordinazioa Dirección y coordinación:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea EMAKUNDE/Instituto Vasco de la Mujer Manuel Iradier, 36 01005 Vitoria-Gasteiz www.emakunde.euskadi.net emakunde@ej-gv.es
Gauzatze/Realización:	OREBE HEZKUNTZA S.L. Aholkularitza eta Zerbitzuak/Asesoría y servicios educativos
Argitalpena/Edición:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea EMAKUNDE/Instituto Vasco de la Mujer
Deskribatzaileak/ Descriptores:	Hezkidetza, Genero-indarkeria, Ikasmateriala, Lehen mailako irakaskuntza Coeducación, Violencia de género, Material didáctico, Enseñanza de primer grado
ISBN	ISBN: 978-84-89630-25-3



Behin bazen Berdinland lurraldean neguko
egun gris eta ilun bat.

Hotz izeneko neska plastikako gelan zegoen
bere lagun guztiekin.



Talde-lana egiten ari ziren bitartean beraien artean hitz egiten ari ziren.




- Eguraldi honek triste jartzen nau -esan zuen goibel mutil batek.
- Ba niri gustatzen zait, ni pozik nago. Agian elurra egin dezake! -erantzun zuen alaitsu neska batek.
- Eta zuri, Hotz, gustatzen al zaizu? -galdetu zioten.
- Ba... ez dakit -erantzun zuen Hotzek.
- Nola ez dakizula?
- Hodei asko dago -esan zien isilik ez geratzeko.



Guztiek Hotz begiratu zuten. Hotzek ez zekien
zer esan.



Bere lagunek "haserre dago", "urduri nago",
"lotsa du" eta antzeko gauzak esaten zituzte-
nean, Hotz isilik geratzen zen.





Halakoetan, lagunek ez zuten Hotz ulertzen.

Ondoko taldean isilik eta lasai zeuden talde-lana egiten. Bat-batean:



ELURRA!

ELURRA!



- ELURRA! ELURRA! -oihukatu zuen talde horretan zegoen Bero izeneko mutilak.


Guztiek harriduraz leihora begiratu zuten.
Elurra mara-mara ari zen. Urteko lehen
elurtea zen.




- Ongi! Elurrarekin jolastuko gara -esan zuen neska batek irribarrez.
- PRIMERAN!!! MUNDIALA!!! -errepikatu zuen Berok zoriontsu.




- Kaka! Busti egingo gara! -esan zuen taldeko beste mutil batek.
- Arrazoia duzu! KAKA ZAHARRA!!! Blai egingo gara! -errepikatu zuen Berok guztiz nahigabetuta.





Guztiek Bero begiratu zuten harriturik. Berok ez zekien zer esan.

Zerbait gertatu eta, adibidez, amorratzen bazen, bat-batean errukitu egiten zen, eta gero errudun sentitu, eta segituan harro eta handik gutxira kezkatuta eta gero... Uf! Halakoetan, lagunek ez zuten Bero ulertzen.





Askotan, Berok eta Hotzek ez zituzten lagunak
ulertzen. Askotan, lagunek ez zituzten
Bero eta Hotz ulertzen.

Hori dela eta, lagundu nahian, kanta edo
bertso bat asmatu zuten.

Eta, askotan, elkar ulertzen ez zuten une
horietan, horrela kantatzen zuten guztiek:

♫ Beroa ta gertua / mutil sentibera,
lasaia eta zuhurra / neskarik hotzena,
ondo eramateko / bizi gorabeherak,
neskak eta mutilak / sentipen berberak.



Elurra gogotik ari zen. Irakasleak leihora
hurbiltzeko esan zien.





Guztiak harriturik zeuden, dena zuritzen ari zen.

- Maisu, atera gaitezke? -galdetu zuen batek itxaropentsu.
- Bai maisu, bai! -esan zuen Berok baikor.
- Ez, jolas-ordua laster da eta orduan irtengo gara. Baina, agian, urteko lehenengo elurtea denez, luzatu egin dezakegu jolas-ordua.

Esan eta egin.

Jolastokira irten ziren eta elurrarekin jolasten
hasi ziren. Baina ez denak. Hotz eta Bero
aterpean zeuden. Lagunak nola jolasten ziren
ikusten ari ziren beraiek jolastu gabe.



- Hotz! Zatoz gurekin elur gainean irristatzera!
- esan zion neska batek.
- Ez. Eskerrik asko.







- Hotz! Zatoz gurekin elur panpina egitera!
- esan zion mutil batek.
- Ez. Eskerrik asko.

Bero begira-begira geratu zitzaion eta horrela esan zion:


- Hori lotsa da.
- Lotsa? Ez dakit.
- Zergatik ez zoaz jolastera?






- Behin, txikia nintzenean, elurretan erori eta eskumuturra apurtu zitzaidalako.
- Orduan ez da lotsa. Beldurra da.

- Beldurra?
- Bai, hori da beldur izatea. Zerbait txarra pasako zaizula pentsatzea.
- Bale, beldur naiz, eta zer?
- Beldurra gainditu egin daitekeela. Ez dakizunean beldur zarela, ez. Baina zeren beldur zaren dakizunean, bai.
- Nola?





- Orain handia zara. Txikitan baino indar eta oreka gehiago dituzu. Eta mina ere gutxiago sentitzen duzu. Zure gorputza sendoagoa da. Zu sendoagoa zara.
- Bai, hori egia da.
- Noski! Izan adorea eta kemena. Izan ausarta, Hotz!




Esan eta egin.

Hotz elur gainean irristatzen ari zirenekin
jolastera joan zen. Berok esandako guztiak
zerbait aldatu zion bere barruan.
Txipa aldatu zuen.

Beroren aurretik pasatzen zen bakoitzean zerbait esaten zion:

- Bero! Irribarrez nago, ezin dut irribarrea aurpegitik kendu.
- Hori poza da. Segi horrela.






- Aldapan ez nago hain pozik -esan zion hurrengo biran.
- Hori ziurtasunik eza da.
- Baina jarraitu eta probatu nahi dut.
- Hori ausardia da.

Eta hurrengo biran:

- Bero! Lortu dezakedala uste dut.
- Hori itxaropena da.



Eta hurrengo biran:

- Bero! Lortu dut!
- Hori harrotasuna da.






Orduan Hotz Beroren ondoan gelditu zen. Eta berarekin jolasten ari zirenak ere bai. Guztiek hobeto ulertzen zuten orain Hotzen jokabidea. Eta Hotzek ere hobeto ulertzen zituen bere lagunak.


- Eskerrik asko, Bero -esan zion Hotzek elur bola bat jaurtiz. Plasta!
- Hori esker ona da -esan zion harro eta zoriontsu Berok.





- Eta zuk, zergatik ez zara jolasten? -galdetu zion Hotzek beste bola bat jaurtiz. Plasta!
- Ezin dut.
- Ezin duzu? -beste bola bat. Plasta!
- Ez, ezin dut.
- Zergatik? -plasta! Eta beste elur bola bat.


- Ez dakit. Zuk poliki-poliki bizi izan duzu hori guztia, niri dena bat-batean gertatzen zait eta ezin dut ezer egin, ito egiten naiz.
- Antsietatea da hori. Niri ere gertatzen zait -esan zion mutil batek.





- Ez dut gustuko horrela sentitzea.
- Hori nahigabea da. Niri ere gertatzen zait -esan zion neska batek.

- Neure buruarekin haserretzen naiz.
- Sumindura da hori. Niri ere gertatzen zait -esan zuen beste neska batek.





- Eta negar egiten dut.
- Bihozmina da hori. Niri ere gertatzen zait
-azaldu zuen mutil batek.
- Esan dizuet eta hobeto sentitzen naiz.
- Lasaitasuna da hori. Niri ere gertatzen zait
-baieztatu zuen beste mutil batek.



- Eskerrik asko! Mila esker guztioi!
- Esker ona da hori -esan zion harro eta zoriontsu Hotzek-, niri ere gertatzen zait.

Biak barrez hasi ziren eta, bitan pentsatu
gabe, bihotzak eta buruak aginduta, elkar
besarkatu zuten. Inguruko lagunak ere lasai,
pozik eta barrez zeuden.





Orduan Berok bola pila egin zituen eta jaurtitzen hasi zen. Plasta! Plasta! Plasta! Eta beste guztiak ere bai. Barre algarengatik izan ezik, jolastokiak Ipar Polo a zirudien.

Orduan, zuzendariak atea zabaldu zuen eta...
oharkabeen, elur bolak zuzendariari: Plasta!
Plasta! Plasta!





Ikasleak konturatu zirenean Ipar Poloko isiltasuna egin zen jolas lekuan.

- Denok gelara! Bukatu da jolas-ordua -esan zien zuzendariak.
- Hau atsekabea. Hain ondo ari ginen jolasten -esan zion Berok ahopeka eta irribarrez Hotzi.



Gelako bidea hartu zuten guztiek.
Gelan sartu zirenean, bustita zuten arropa
lehortzen jartzen zuten bitartean, ba al
dakizue zer kantatu zuten Berok, Hotzek
eta euren lagun guztiek?:



♪♪ Beroa ta gertua / mutil sentibera,
lasaia eta zuhurra / neskari hotzena,
ondo eramateko / bizi gorabeherak,
neskak eta mutilak / sentipen berberak. ♪♪

